


# Xabalina euskal erara



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**M**adril, 1956ko irailaren 21a. Miguel de la Quadra Salcedo (1932-2016) atletak xabalina 82,80 metrora bidali zuen, Erik Danielsen 81,20 metroko munduko marka hautsiz. Baina euskal atletak -Madrilen jaio arren, euskal herritartzat zuen bere burua, erdi bizkaitar eta erdi nafartzat- munduko errekor hori ere guztiz txikituko zuen, 112 metrora iritsita. Horretarako, “euskal” moduan jaurtitzen zuen xabalina; batzuek “artzainaren teknika” esaten zioten, eta garaiko hainbat komunikabidek “espainiar teknika” ere esan zioten.

2005ean Amets Arzallusek ARGIAN egindako elkarrizketa batean azaldu zituen Miguelek teknika bereziaren nondik norakoak. “Ermuko nire lagun batek, Felix Erauskinek, kontatzen zidan artzainek zer teknika erabiltzen zuten ardiak zaintzeko. Hurritz akuilu txiki batzuk botatzeko. Hurriz akuilu txiki batzuk botatzeko zioten estilo berezi batean”. Felix Cecilio Erauskin Gorbeiaiko artzainaren semea zen, gaztetan bera ere artzain ibilia. Miguel de la Quadra Salcedo bezala, atletismoan nabarmendu zen, jaurtiketa probatan. “Botatzerakoan eskutan irristatzen uzten zuten eta hala askoz urrunago joaten zen makila”. Hala, jaurtitzailak eskua urez edo xaboiez bustitzen zuen, xabalinak errazago irrist egin zezan; jaurtiketa probatan alderantziz egin ohi da, eta magnesioa erabili ohi dute ez irristatzeko.

“Baina, ez zen hori nire teknika bakarra, barra euskaldunaren teknika erantsi nion estilo horri. Nire familia Enkarterrietakoa zen, Somorrostro partekoa. Han barra batzuekin, palankariekin, zuloa



Miguel de la Quadra Salcedo (ezkerrean) eta Felix Erauskin (eskuinean) xabalina “euskal erara” jaurtitzen.

egin eta minerala ateratzen zuten. Tarteka. lan egiten zutenen artean txapelketa batzuk egiten zituzten ea nork botako barra urrunago. Hori zen barra euskalduna. Eta haien teknika zen botatzean barrak hiru buelta ematen zituela bere baitan, bidean indar zentrifugoa indar lineal bilakatzeko”, egun mailu jaurtiketan gertatzen den bezala. Beraz, De la Quadrak udan Hendaiako hondartzan entrenatzen zuen teknika hori “artzainarena” izateaz gain, “meatzariarena” ere bazen.

Baina 1956an bertan, Melbourneko Joko Olinpikoetan teknika hori erabiltzea debekatu zuen Nazioarteko Atletismo Federazioak, arriskutsua omen zelako; biratzeko eta irristatzeko teknika harekin, xabalinak edonora ihes egin zezakeen. Orduan, teknika egokitu zuen: “Lehenik xabalinak ez zuela itzulirik eman behar idatzi zuten, eta hori gabe 95 metrora botatzen nuen”. Munduko errekorra hauste-

ko sobera, beraz. Baina oraindik errotazio txiki bat egiten zuen xabalinak, eta hori ere debekatu zuten beste araudi batean: xabalinaren puntak une oro aurrera begiratu behar zuten. “Hor izorratu ninduten”. Beraz, De la Quadrak ez zuen araurik hautsi, gerora aldatu zituzten arau horiek, baina hori nahikoa izan zen aurretik lortutako markak bertan behera uzteko. 112 metroko marka munduko errekorra izango zen oraindik gaur egun, markarik onena 98,48 metrotan baitago 1996az geroztik.

Baina, azkenean, Miguel de la Quadra Salcedo abenturazaleari balio izan zion teknika hark. “Amazonasko indioen artean estatus handia nuen. Estatus hori sekula ez zuen txuri batek izan, nik nuen otordurik onena, hamakarik onena, surik onena, hori guztia xabalinari eskerrak, urrutien nik botatzen nuelako”. Nazioarteko Atletismo Federazioak ukatu ziona aitortu zioten amazoniarrek. ●



VATIKANOKO MUSEOEA

## Partenoiko marmolen bideak

Joan den martxoaren 24an, Partenoiko frisko eskulturen hiru zati Atenasera itzuli dituzte, zehazki hiru buru: haur batena, zaldi batena eta gizon batena. Pieza horiek Vatikanoko Museoan zeuden XIX. mendetik, baina iragan abenduan Frantzisko aita santuak jatorrira itzul-

tzeko erabakia hartu zuen, “egiaren bide ekumenikoari jarraitu nahian”. Bitartean espoliatutako pieza gehienak Londresko Britainiar Museoan daude, eta berriki berretsi dute haiek direla Fidiasten marmolezko eskulturen jabe legitimoak, egiaren bideari muzin eginez. ●